



ENPRESENTZAKO LAGUNTZAK langileak kontratatzeagatik

info+
943 510 200
olibet@oarsoaldea.eus



**EDOZEIN ZALANTZA
EDO ARGIBIDE BEHAR
IZANEZ GERO:**

943.510.200

olibet@oarsoaldea.eus

2020 urtean langileak kontratatu dituzten enpresentzat diru-laguntzak

6 hilabete edo gehiagoko iraupena duten kontratuak, kontratazio epea, 2020ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31 bitartean eginikoak izango dira.

3 hilabetetako kontratuetan aldiz, kontratazio epea, 2021eko martxoaren 31ra arte zabaltzen da, honako kontratu hauek 2021eko urtarrila, otsaila eta martxoan ere hasi daitezkeelarik.

Diru-laguntza jasotzeko kontratuak gutxienez hiru hilabetekoa izan behar du. Hiru hilabete edo gehiagoko iraupena duen kontratuen kasuan, lanaldi erdikoak direnean 1.500 euroko laguntza emango dute eta lanaldi osokoak direnean 3.000 euro; 6 hilabete edo gehiagoko iraupena duen kontratuen kasuan aldiz, 6.000 euro.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Enpresak eskaera aurkezten duenetik, 15 egunetako epemuga egongo da oinarrietan eskaturiko dokumentazioa entregatzeko:

- Legezko arduradunaren NANaren fotokopia eta enpresa eratzeko eskrituren fotokopia.
- Zerga ogasun eta Gizarte Segurantzaren bete beharretan egunean dagoen ziurtagiria.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak emandako ziurtagiria.



Kontratuari buruzko dokumentazioa

- Diruz lagunduko den kontratuaren kopia osatua eta sinatua, lanaldia eta iraupena agertzen dena.
- Gizarte Segurantzaren alta IDCaren kopia (Kotizazio Datuen Informea), Gizarte Segurantzak igorria.
- TC1 eta TC2 kontratazio hilabeteei dagokien dokumentuak.
- Kontratazio hilabeteei dagokien nomen kopiak.

Diru-laguntzaren oinarriak hemen daude eskuragarri.

Eskaerak nola egin

Eskaera orri hau bete eta Oarsoaldea Eskualdearen Garapenerako Agentziaren Enplegu bulegora bidali beharko dute enpresek: olibet@oarsoaldea.eus